

Guraso Iltzalleak

Makilla bat gurasok.

Sarri oi dabe egin:

Semeai gorputz emon

Eta arimta il...

Axiera ezas ta

Erakus tzarrakin.

Guraso maitea: Bai, zeuretzat egiña da bertso au. Zeure ume ederren arima-iltzalle ete zaitut?

Espiritu Santuak deabruari «lenengotik iltzalle» deritxo. Zer dala-ta?

Luzbeñ aibat ete aibat aingeruen agintari ta buru zan. Bere arrokeri, gaiztakeri ta erakusbide tzarragaz, menpeko aingeruak okerbidera ta pekatura eratsi zituan.

Luzifer dozue, ba, aingeru gogots onen galtzallea ta iltzallea.

Guraso tzarrak be Luzifer'en antzeko dituzu. Milloak aingeru galdu ziran bere erruz...»

Eta milloak ume errubako galdu dira guraso ardurabako gaiztoen erruz.

Guraso onetik semiai gorputz bitzita emon dautse, bai, eta euren itzitasunagaitik eta aziera ezagaitik arimako eriotza emon dautse. Betiko eriotzal!

Kain anker eta biotz bakoak, mundu ontako lenengo seme tzarrak, Abel bere anayari eriotza emon arte ez eban bakerik izan.

Jaunak bere oben-bidera urtenda esaten dautso: Kain, zer egin dozu? Nun da zure anaya? Eta Kain'ek: Jauna, ni ete naz, ba, nire anayaren ZAINDARIA?

Gurasoak dira, egi-egiz, seme-alaben ZAINDARI ta arduradun bakarrak. Itandu egiozu guraso orreri: Nun da zure alabia edo zure semea? Ba'ete daki? Jakiñean ete dago bere alabatxua edo seme maitea ilda dabilzala orko bazterretan...? Ba'ete dakie arimaren eriotz ortan eurek be parte daukela? Ba'ete dakie nogaz eta zelan eta nundik dabizen euren biotzeko umeak...?

Guraso oneik Kain bera baño be tzarragoak dozuz.

Zer erantzungo dautse Jaunari:— Guraso, nun da zure umea...?

Ez ete zaitut zeu, ba, bere ZAINDARIA?

Eta bere arima-ILTZALLE biurtu zara?

Medellin, (Colombia); 23, 1, 57.

Zenon A., C. P.